

URRETXUko TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21



Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.


24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:



Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batezbestekoarekin alderatuz, **txikiagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikatuta dauden eragile-kopurua** lurraldeko batezbestekoa baino **baxuagoa** da.




Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%24 ezarri da lehenengo urtean


%24ko hazkundera 2014 -2015 epealdian

Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **altua** da desiragarria den **helburuko** balioarekiko, baita urte horretan lurraldeko **batezbesteko balioa** hartuz ere.



Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?



■ Hasteko
 ■ Hasita
 ■ Aurreratuta
 ■ Amaitzen
 ■ Amaituta

2015ean amaitzen eta aurreratuta dauden ekintza adierazgarri batzuk:

1.4.2. Elkarteen udal erregistroa sortu

2.1.2. Irimo proiektua -Hirigintza ulertzeko eta eraldatzeko parte hartzeko prozesu berritzailea- garatu

3.2.1. Semi-peatonalizazioaren aukerak aztertu

3.3.2. Mugikortasun arduratsu eta bizikidetsua sustatzeko informazio eta sentsibilizazio neurriak landu

3.2.5. Auzobusa zerbitzuaren etengabeko hobekuntza ziurtatu

6.1.1. Bertatik bertara moduko proiektuekin jarraitu, hau da, lehen sektorea bultzatzea helburu duten proiektuekin


7.2.3. Zahartze osasuntsurako prebentzio neurriak sustatzeko neurriak ezarri

7.2.6. Udal kudeaketako plaza geriatrikoak gehitzeko bideak bilatzea

2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

- 1.5.2. Auzoen memoria berreskuratu eta ikertu
- 1.2.2. Tokiko Ekintza Plan 21aren jarraipenerako batzorde irekia eratu
- 2.1.1. Udal planen bateragarritasuna lortzeko batzorde bilera komunak egin
- 2.5.1. Udalerriko kultur ondarearen inbentarioa burutu maila etnografikoan
- 7.2.5. Orduko edo aldi baterako egonaldiak errekuperatzea
- 7.1.3. Droga-menpekotasunari aurka egiteko udal plana eguneratu
- 4.3.2. Udal larrialdi plana eguneratu
- 4.1.6. Baso ustiapenetan egiten diren egur eta enborkien pilaketen ondorioz eragindako kalteak saihesteko egur parkea ezarri
- 2.4.1. Zuhaitzen inbentarioa burutu
- 5.1.1. Baliabide hidrikoen aprobetxamenduaren ezaugarritzea burutu
- 2.4.2. Udalerriko hiri-zuhaitz eta berdeguneen diseinua, kontserbazioa eta erabilera definitu eta saretu
- 4.1.3. URA Ur Agentziarekin lankidetzan ibai habitaten kontserbazioa eta lehengoratzea burutu
- 4.1.2. Udalerriko errekastoei korridore ekologiko gisa duten funtzioaren azterketa burutu
- 4.2.4. Aldaketa klimatikoaren aurkako programa landu eta ezarri

Ildo estrategikoen arabera ezarpen-maila



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

LURRALDEA ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA EREDU IRAUNKORRA: %19ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Hirigintza orekatua, barneratzailea, malgua, osasuntsua eta partaidetzan oinarritutakoa landu
- Hiritar guztiei etxebizitzara sarbidea erraztea
- Landa lurren bokazioa eta jasate-ahalmena errespetatzea
- Udalerria berdez kolonizatzea
- Kultur ondarea babestea

INGURUMEN OSASUNTSU ETA OREKATUA BULTZATZEA : %17ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Natur eta paisaia ondasunen babesa eta lehengoratzea
- Ingurumen kalitatea babestea eta klima aldaketaren borrokan erantzukizuna hartzea
- Arriskuaren plangintza eta kudeaketarako tresneriaren diseinua eta martxan jartzea

Partaidetza TA21en baitan:

**AGENDA 21EN
FOROAREN
PARTAIDETZA-
BILERA BAKARRA
ANTOLATU DA
BERRIKUSPEN
PROZESUAREN
BARRUAN**

**9 PARTE-HARTZAILE:
6 EMAKUME/
3 GIZON**

**AURREKONTU
PARTEHARTZAILEAK
ANTOLATU DIRA**

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (www.urretxu.eus web gunean eskuragarri)

